Pompælo Antiqua



ANTZINAKO MUSIKAREN II. ZIKLOA

Sakristia rokokoa, Iruñeko Katedrala &

La Fábrica de Gomas

2025eko udazkena, Iruña



Iruñea historia eta garaikidetasuna modu naturalean bizi diren hiria da. Elkarrizketa horrek berak inspiratzen du Pompælo Antiqua, publikoari hurbiltzen zaion musika ziklo bat, zeinak aintzineko musika orainera ekartzen duen, bikaintasun artistikoa, hurbiltasuna eta ondareari begirada berritua uztartuz.

Zikloko bigarren edizio hau Iruñeko Katedraleko sakristia rokokoan —Alde Zaharreko bihotz-bithozean— eta Lezkairuko auzoan dagoen La Fábrica de Gomas arte garaikideko galerian egingo da. Espazio erabat ezberdinak izanagatik, elkarrekin tradizioa eta berrikuntza, ondarea eta egungo bizitza batzen dituzte.

Programazio nagusiak hiru kontzertu eskaintzen ditu, unibertso musikal desberdinak aurkezten dituztenak: irailan, *Alma, che fai?*, Raquel Andueza eta Jesús Fernández Baenarekin, zikloari emango zaio hasiera, espiritualtasunaren zerbitzura dagoen Barroko goiztiarreko musika italiarrarekin. Urrian, El Parnasillo-ren eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Musika Zientzien Institutuaren eskutik *Navarra ilustrada*-k, XVIII. mendeko Nafarroako ondarea berreskuratuko du, José Castel, Sebastián de Albero eta Navascues Etxeko musika-liburutegian aurkitutako errepertorioarekin. Azaroan, *Danser, ballare*-k, VIVALMA ensemblearen eskutik, zikloa itxiko dantzari lotutako musika instrumental frantses eta italiarraren bizitasunarekin.

Zikloa osatuko da familiarekin batera egingo den kontzertu-tailerraren bidez, aktore eta bitartekari den Ana Hernández Sanchizen eskutik; harekin batera, Dúo 27k *Ostinati: bueltako melodiak* programa eskainiko du, lehen haurtzaroari zuzenduta.

Pompælo Antiquak bigarren edizio honekin, bere nortasun propioaren aldarria berretsi eta sendotu nahi du: interpretazio historikoan espezializatutako musikari nafarrek proiekzioa aurkitzen duten espazio bat bezala, eszenatokiek publikoaren entzutea eraldatzen duten leku bat bezala, eta aintzineko musika esperientzia bizi eta hurbil gisa eskaintzen den eremu bat bezala.

Zuzendari artistikoa

Pompælo Antiqua

www.pompaeloantiqua.com

IRAILAK 27 - 18:00

Alma, che fai?

Raquel Andueza & Jesús Fernández Baena

URRIAK 11 - 18:00

Navarra ilustrada

El Parnasillo

AZAROAK 15 - 18:00

Danser, ballare

VIVALMA

AZAROAK 22 - 12:00 (GAZTELANIAZ) / 17:00 (EUSKARAZ)

Ostinati: behin eta berriz... - familia-kontzertua haur eta helduentzat

Ana Hernández Sanchiz & Marta Ramírez - Belisana Ruiz



www.pompaeloantiqua.com

1. Alma, che fai?

Alma, che fai?

Raquel Andueza, soprano
Jesús Fernández Baena, tiorba

IRAILAK 27, 18:00
Sakristia rokokoa, Iruñeko Katedrala

Alma, che fai? XVII. mendeko Espainia eta Italiako errepertorio moral eta sakroan zehar proposatutako ibilbidea da: bambino Giesù-ri eskainitako sehaska kanta anonimo goxoetatik Claudio Monteverdiren Maria Magdalena-ren negar mingarriraino. Pasioa, samurtasuna, irrikia, hutsunea, itxaropena... hori guztia musikaren bidez kontatua eta kantatua, hitzari ia zerbitzari moduan men egiten dion musikarekin, eta bere garaian guztiz iraultzailea izan zena. Barrokoaren hasiera da, historiako proposamen ausart eta berritzaileenetakoa, XVII. mendearen hasierako Italian garatzen hasi zena. Lerro biziak, melodiaren eta baxuaren arteko tentsioa, eta entzulea hunkitzea bilatzen duen dispositibo erretorikoa, beti *seconda prattica*-ren printzipioen pean.

Raquel Anduezak, Jesús Fernández Baenarekin batera eta pasioa oinarri hartuta, elkarrizketa espiritual sakon baten moduan garatzen den programa zirraragarri hau proposatzen du.

SARRERA AURREZ:
Orokorra 20 / Murriztua 16 / Haurra 5

TXARTELDEGIAN:
Orokorra 22 / Murriztua 18 / Haurra 7

www.pompaeloantiqua.com

2. Navarra ilustrada

Navarra ilustrada

El Parnasillo

Marta Ramírez & Paula Pérez, bibolinak
Carla Rovirosa, biolontxeloa
Eloy Orzaiz, klabea

URRIAK 11, 18:00
Sakristia rokokoa, Iruñeko Katedrala

Navarra ilustrada programak XVIII. mendeko Nafarroako urrezko doinuen barna bidaia paregabea eskaintzen du, garai hartan modu batean ala bestean, lurraldean egon zen Klasizismoko musika instrumentalean oinarrituta. Tokiko produkzioaren eta garai hartako gustu europarraren arteko elkarrizketa baten gisa, kontzertu honek Nafarroarekin jaiotzez, jarduera profesionalagatik edo testuinguru nobiliarioetan harreragatik lotura zuten konpositoreen lanak biltzen ditu. Programan José Castel (Tuterako katedraleko kapera-maisu), Sebastián de Albero (Erronkarikoa) eta Navascués Etxeko musika-fondoan kontserbatutako nazioarteko konpositoreen lanak daude. Kontzertu hau El Parnasillok ICCMUrekin edukitako lankidetzaren fruitua izan da, azken honek aholkularitza musikologikoa eskaintzen duelarik. Izan ere, Navascués Etxeko artxibotik berreskuratutako bi lanen edizio kritikoan parte hartu du, aipaturiko obrak gaur egun berriz estreinatzea ahalbidetuz.

SARRERA AURREZ:
Orokorra 20 / Murriztua 16 / Haurra 5

TXARTELDEGIAN:
Orokorra 22 / Murriztua 18 / Haurra 7

www.pompaeloantiqua.com

3. Danser, ballare

Danser, ballare

VIVALMA

Marta Ramírez, bibolina
Marina Cabello, viola da gamba
Inés Moreno, klabea

AZAROAK 15, 18:00
Sakristia rokokoa, Iruñeko Katedrala

Danser, ballare Barrokoaren bihotzeraino egindako bidaia bat da, honek dantzarekin duen lotura funtsezkoaren bidez. VIVALMA ensembleak suite frantziarraren dotorezia —Francoeur, Duphly, Marais, Rameau eta Couperinen lanekin— uztartzen du ostinato baxuan oinarritutako dantza italiarren bizitasunarekin, hala nola txakona, fandangoa eta hain ospetsua den folia. Frantziako gortearen dotoreziatik hasi eta Corellik, Scarlattik eta Bertalik Europan zehar hedatutako esentzia herrikoia ahaztu gabe, VIVALMAk mosaiko sonoro bat eskaintzen du: biolinaren, viola da gamba-ren eta klabearen espresibitatearen bidez, tradizioa eta irudimena goresten ditu, historizismoa eta freskotasuna uztartuz.

SARRERA AURREZ:
Orokorra 20 / Murriztua 16 / Haurra 5

TXARTELDEGIAN:
Orokorra 22 / Murriztua 18 / Haurra 7

www.pompaeloantiqua.com

4. Ostinati, behin eta berriz...

Familia-kontzertua haur eta helduentzat

Ostinati, behin eta berriz...

Ana Hernández Sanchiz, narratzailea
Marta Ramírez, bibolina
Belisana Ruiz, gitarra & tiorba

AZAROAK 22, 12:00 (gaztelaniaz) & 17:00 (euskaraz)
La Fábrica de Gomas, Lezkairuko Sotoa

Ostinati, behin eta berriz... begizta amaigabe moduko melodiez sortutako kontzertua da: melodia tematiak, burugogorrak, errepikakorrak, hainbeste kontatzeko dutenak, non 1584 aldiz errepikatzen diren! Batzuek herrialde urrunak eta haien jendearen nortasuna deskribatzen dute; beste batzuek, errepikapen bakoitzarekin, ipuin zirraragarriak askatzen dituzte, entzuleak ustekabeko bideetatik gidatuz; eta badira beste batzuk, zeinek beren errepikapen amaigabeekin, emozio paregabe antzeko mendi-errusiar bat sortzen dutenak.

Melodia batzuk etengabe errepikatzen dira, norbaitek entzun ditzan behar dutelako; beste batzuk, berriak dakarztelako; urrunekoak, berriz, tokiko ederrenak direla uste dutelako. Zeinahi dela errepikapenaren arrazoia, guztiek harrituko gaituzte, gozaraziko digute, hunkituko gaituzte eta Barrokoaren hiru mundu desberdinetara eramango gaituzte. Kontuz! Italiako birtuosismoak eta dramatismoak Frantziako elegantzia eta fintasunarekin talka egingo dute. Zorionez, hauen bien arteko desadostasunak, bizilagun europarren elementu herrikoiei esker konponduko ahal izango dituzte...

SARRERA AURREZ:
Heldu orokorra 9 / Heldu murriztua 6 / Haurra 3

TXARTELDEGIAN:
Heldu orokorra 12 / Heldu murriztua 9 / Haurra 6

www.pompaeloantiqua.com

Lagundu nahi diguzu? Gu MECNA proiektua gara!

Pompælo Antiqua-ri pertsonen eta enpresen ekarpenak Nafarroako Kultura Mezenazgoaren Foru Legeak arautzen ditu. Zure ekarpenei esker, abantaila fiskalak izango dituzu:

- **Partikularra bazara**, PFEZeko kuotaren %80ko kenkaria izango duzu urteko lehen 250 euroetan, eta %40 gainerakoetan.
- **Enpresa bazara**, Sozietateen Zergaren zerga-oinarrian kenketak izango dituzu, eta kuota likidoaren %30 lehen 300 euroetan, eta %20 gainerakoetan.

Informazio osoa:
https://www.culturanavarra.es/eu/mezenas-izan-nahi-dut

Zure ekarpena egin:

ES79 0049 7466 9825 1003 8375

Zure dohaintzaren ziurtagiria eskatu:

info@pompaeloantiqua.com

mecna
MECENAZGO CULTURA NAVARRA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA



SARRERAK ETA INFORMAZIOA:

www.pompaeloantiqua.com

Antolatzailea:	Diruz laguntzailea:	Finantzatzilea:
ASOCIACION PARNASO	Ayuntamiento de Pamplona / Iruñeko Udala	Fundación Fuentes Dutor

Laguntzailea:

Comunidad de Madrid

LA FÁBRICA DE GOMAS
UN LUGAR DE ENCUENTRO

FEST RIB ALT

Instituto Complutense de Ciencias Musicales

CASA DE NAVASCUÉS

CATEDRAL DE PAMPLONA

CATEDRAL PAMPLONA MUSEO IRUÑA